Sozio-Karitatezko Kanpaina
2024



Gogora ekarri nahi dugu kanpaina honen abiapuntua irailean izan zela "Begiratu zuzenean errealitateari" leloarekin. Gabonetan "SENTITU, HUNKITU. Eguberria da" proposatu genuen. Eta orain, hirugarren une honetan, eta aurreko bi urratsen prozesuaren ondorioz, errealitatea ikusteak eta errukia sentitzeak sortzen duten konpromisoan gelditu nahi dugu "EKIN, partekatu zure onena" esaldiarekin.

Kanpaina honek samariar onak erakutsitako bideari jarraitzen dio, ikasturte honetan Caritas Gipuzkoa elkartasunaren, zaintzaren eta justiziaren eraikuntzan gidatzen gaituena. **Zein konpromisora bultzatzen gaitu pobrezia eta bazterkeria errealitateak ikusteak eta bizitzen dituztenengan errukia sentitzeak?**

Samariar onaren adibidea Maríaren, Nazareteko Jesusen amaren, isla baino besterik ez da. Izan ere, **Francisco aita santuak** 2013ko hilabete marianoren bukaerako otoitzean nabarmendu zuen bezala, ***"entzun, erabaki, ekin aditzek María bera definitzen dute"***. Eta jarraitu zuen: *"bizitzan zaila da erabakiak hartzea; askotan, erabakiak atzeratzeko joera izaten dugu, beste batzuen esku uzten ditugu; askotan, nahiago izaten dugu gertaeren menpe gelditzea, uneko modari jarraitzea; batzuetan, badakigu zer egin behar dugun, baina* ***ez dugu adorerik edo zailegia iruditzen zaigu, korrontearen kontra joatea eskatzen duelako".***

Puntu honetan, Francisco aita santuak adibide gisa jartzen du María: *"Deikundean, Ikustaldian, Canáango ezkontzetan korrontearen kontra doa; Jainkoa entzuten du, gogoeta egiten du eta errealitatea ulertu nahi du, eta Jainkoarengan bere konfiantza osoa jartzea erabakitzen du; haurdun egonda ere, adineko senidea bisitatzea erabakitzen du, eta Semearengan behin eta berriz fidatzea erabakitzen du, ezkontza salbatzeko".*

Honen aurrean, aita santuak honako gogoeta egin zuen: "*batzuetan, gu geu ere entzuten dugu, egin beharko genukeenaz gogoeta egiten dugu; agian, hartu behar dugun erabakia ere argi dugu, baina ez gara ekintzara pasatzen.*

Eta, batez ere, ez dugu geure burua bera jokoan jartzen, beste pertsonengana "atzerapenik gabe" mugituz, haiei gure laguntza luzatuz, gure ulermena, gure zaintza eramateko; baita, Maria bezala, Jesusengandik eta haren Ebanjeliotik jaso duguna eramateko ere, ez hitzarekin bakarrik, baizik eta, batez ere, ***gure jardunaren testigantza zehatzarekin".***
Ikasturte honetan gidatzen gaituen sentsibilizazio proposamenak ("Elkartasuna eraiki. Proposamen samariarra) samariar onaren hirugarren etapa hau (Zauriak sendatu zizkion-Bere gain hartu zuen) trebetasunak eta konpromisoa heztean laburbiltzen du. Hori, hain zuzen, da bultzatu nahi duguna ekitera gonbidatzen gaituen kanpaina honekin. Beste batzuekin jardutera, gainera. Sokaren noranzko berean tiratuz, taldean, sokatiran bezala. Horregatik aukeratu dugu irudi hori. Kasu honetan, eta kanpaina bakoitzean bezala, taldelanean ari gara, Elizbarruti gisa, Pastoral soziokaritatiboarekin batera, Espetxeetako Pastoralarekin, Osasunaren Pastoralarekin eta Caritas gisa.

Sentsibilizaziorako katalogoak honela azaltzen du konpromisoa: *"ongia ondo egitea, laguntzan gai izatea, laguntzeko oinarrizko tresnak erabiltzen ikastea. Samariar onaren erreminta-kutxa, une jakin batzuetan sendatzen eta arintzen duena ez ezik, ahulenentzat*

eta babes gabekoentzat eta, oro har, gizateria osoarentzat zaintza kultura eraikitzen duena ere bada". Eta hau gehitzen du: *"Samariar onak ez du nahikoa zauritutako eta erasotutako pertsonaren bizia salbatzearekin, zerbait gehiago egin behar duela ulertzen du,* ***laguntza denboran jasangarria izango dela bermatu, eta bere gain hartzea erabakitzen du"****.*

Aztarna honek bereizten ditu, adibidez, "boluntariotza egitea" edo "boluntario izatea", "laguntza puntuala" edo "laguntza iraunkorra eta eraldatzailea", "eskola ematea" edo "hezitzailea izatea": zerbitzurako bokazioa azpimarratzen du.

Garizuman, oso aproposa gainera. Francisco aita santuak berak, Garizuma honetarako mezuan, zera gogorarazten du: *"Garizuman, gelditzea zerbait egitea da. Otoitz egiteko gelditzea, Jainkoaren Hitza hartzeko, eta samariarrak egin zuen bezala, zauritutako anaiaren aurrean gelditzea. Jainkoarekiko eta hurkoarekiko maitasuna maitasun bakarra da".*

Eta honela jarraitzen du: ***"Azken urteotan berraurkitzen eta lantzen ari garen Eliza sinodalak Garizuma erabaki komunitarioen garaia dela dio, kontrakorronteko erabaki txiki eta handiak hartzekoa, pertsonen egunerokotasuna eta auzo bateko bizitza eraldatzeko gai direnak:*** *erosteko ohiturak, sormenaren zainketa, ikustezinak diren pertsonen gizarteratzea. Gonbit egiten diet komunitate kristau guztiei hau egitera: fidelei euren bizitza estiloei buruzko gogoeta egiteko denbora eskaintzera; auzoan duten presentziari buruz hausnartzeko eta auzo-bizitza hobetzeko egiten dezaketenari buruz pentsatzeko".*

Martxoko kanpaina honekin ekintzarako dei hori indartu nahi dugu, errealitatea hobera aldatzen saiatzera, gure inguruko keinu txikietatik abiatuta. Dei hori, **ekin**, entzutera, laguntzera, ondoan jartzera, ingurumena errespetatzera, komunitatea egitera, ingurukoak zaintzera eta geure buruak zaintzerako deia da. Azken finean, **gure onena partekatzera.**